

Euzkadi

AZALPENAK

(Agur Jaunak, agur t'ardi)

Agur Jaunak! Euzkadi gutxiak agur tuten zaitubeze, Gernika'ko Zugatzaren itzalpian. Amaitzeku giza semeren leyak eta zaletasunak dikurzugatz onek. Iparragirre or dator eta txapela kendurik abesten dau:

"Gernika'ko arbola da bodeinkatua..."

Eta bere abestijan estau benetako maitasuna bafia aitortuten. Mundu gutzijan euzko zugatrak bere igaljak zabaldu dagizala, nai dau. Orra geure demokrazian eskarija. Erri onek estau ifhoren aurkakarik gura. Eman da zabalzazu, munduban frutuba...

Eta atzian agertzen da beste gixon guren bat. Argijak jodautsoz begiak eta bekotija. Zugatz doneari begira geratu da. Aren ganian gurutz deuna geure Goiburua ikusi dau. Zugatz or' zar, sendo sindua da, Bizkaiko legiajak lakua. Orra or Arana Goiri'tar Sabiñ ek ikusi ebana Gernika'n.

Eurrez euzkotarrak etorri dira oraxa eta gutzijaik antziakoiu lagi deunen itzala betestu dabe. Eztago geure artian Zugatz baxen afia orogarr'i daukon gazuarik. Gomuta minenak dakarguz, askatsun xiak darabillekako.

Agur jaunak, jaunak agur, agur t'ardi. Euzko erriaren agurra dozube. Gaur pozik goratuen zabezen eran, bijar agur ori egingo al dautube, barriz ona zatorzenian, aintzazko gurendagaz batera. Eta ez aizu abesti orretan jinkun eginak garaia orok diñogu Zu ere bai, nire ere. Ba fia gaur abesten dogun eresi onetan beste gauza gogor bat badago. Jaunak emen gire. Bai emen gara, gutzijaik zubei gogor egiteko, zebekin Madrid era juteako biar bada.

Agur Jaunak abestiagaz arerra ona egiten yaken lenago geure pilotari ayeri, gaur ezta arerra, agurra bafia. Bijak indar bardiña.

Bijotzak ikututen dauksuz Gernika'ko zugatz onek eta estakigu zelaa agertu geure poza. Ekara naitokotko Zugatz onen abarrak barriro munduban zabaldua ikusi arte. Beste errijen abestiagan baten edo baten aurka egiten da, emen osteria ez, emen bendiziozko itzak bakarrik diñoguz. Eman da zabalzazu munduban frutuba. Orra demokrazian itzik ederrena.

Agur jaunak, jaunak agur, agur t'ardi.

Denak jinkun eñak gire, Ni ere bai, zuek ere.

Agur jaunak, agur t'ardi, Emen gire.

Abesti onen oñak eruan dagijelaide orotara euzko erriaren berbizkundia. Araba geure Irakasliak erakutsi euskuban berbizkundia, ez erdizkoa. Aldunak ixan zaitzela, emen batu garan oroen ordez agertu dagixubezan geure askatasun zaliak. Ezkara jopubk, eztago ixan gura.

LAUAXETA.

Euzkaldun Salerosleai

Idazle gorengo askori zor, euzkel atal onek lortu daben edertasunik irauan dagian Euzkadi onek euzkerazko iragarki edo anoncioak emetik aurrera agertuko dauz. Bazotzak gura daben zatian edo tamafuan eta guradaben eran agertuko dira, baita bakotzak gura daben egunean bere.

Onexek izango dira saneurri edo presluak:

Mlean iragarki bat, lerroko edo lineako, 0,75 laurleko.

Astean iragarki bat, lerroko, 0,50.

Astean iru iragarki, lerroko, 0,40.

Eguroro iragarki bat, lerroko, 0,30.

Gutziaik aurtuten dagoz iragarkia ixan daiten. Orrela luzaragoan txindi emon bearra bere txiarkia izan daitela lerro gitxikoa, iruan dagile iragarkiak.

Iragarkiak ezazu zabaldu bearra lerro askotan eukiten, sarri agertzean baño.

ERIJETATIK

GATIKA'TIK

IZPAR BELTZAK

Joan dan ostelengan il zan, eta astearte onbiratu eben erri onetan danen maite izan dan Bilbao'tar Jona G. B. Laguntzen dotegu aren ana eta sendi gutziari euren otsekobean, geure zotifia emonik.

BERRITOXO'TAR BALENTIN EGUNA

Lengo asteko larubatean izan zan geure ana'i Euzkadi ain maite izan eban Berritoxo'tar Balentin Doutsuaren eguna, eta ikusirik lurreko arazoetan estu gabiltzala oraingo aldian, sendatu gendun urrengo igandeko egun orren azalpena. Baita oneraspas andiagaz gind zai jai ori, baze ber bertako Eleiz Gaztediko mutillak, zein euran buruzat daukan Deun orrieri otioz alaiak eginik eta beste abesti eduzkatz onesi eben, eta bertako jaupari buruak azaldu eban argiro Deun andi orren bizitza, eta onetara eskatu bear dautsugu gutziok Bizkaiko garenok gaur Jaungoiko eta lege zarren alde, Bizkaiko seme oneri, aldendu daizan ekandutaz gutzia aberri onetat, eta indartu daitezcan asaben ekanduz garbi eta ederrak.

JAUPARI BARRIA

Joan daku ainbat urte igarota gutziak neure ustez maite izan dagan Jauparia. Gangoit'ar Iñaki. Opatzen dautsugu sori ona geratu dan Arrieta'ko errian, uste dogu maitatuko dabela an bere, gaur erri onetan ain maite izan dogun moduan sein dala malako andia artu dogu, eta orregeit'ar sori onak opatzen dautseguz, eta isan dagitela ain maitea, ain legues, ain ordez etorri daku Bilbao'tar Jaun Julen. Jatabe geure udu erriko semea, etorri aidi ona opatzen dautsegu jaupari gazte oneri.

NESKA IKASTOLAN

Joan dan igandeko jaupa nage-osi oñian, neskan ikastolan egozan erriko Udal ordea eta beste asko, bertako neskatzen urtaro egun dabezan lan politik ikusten, eta politik bere politik ziran. Ain geratu ziran pozik neskatu gutziak. Eskerrak eta ordu on auran irakasleri, eta emoten dautsegu jaraibidea orain arteko legezaurrera bere, eta zori onak.

ZEANURI

NASKALDIJA

Erotaetxe'tar Iñaki jatuna'ren sendia emen Zubiateko Jauregian aurkitzen da. —Bilbo'tik etorri da Oleaga lege-gzo na'ren sendia.

—Muxike'tik etorri ta agurtu dogu emen Etxebarria jauparia.

—Plaza'ko ikastolara irakasle barri etorri zan lengoan.

GAUR GERNIKA'RA

Emengo Udal gizonak asmaua artu eben batzarrera yateko. Bertan batuko dira aldun edo Diputadu urten dabanak da euzko araudien aldekoak. Garrantzi a ndiko a izango da ze milieka asko yango da urirretara egun gitxi barru J. I. Madrid'

jen, gure, Askatasuna, gu, len 1839'ra. auterarte izan gitan lez aske izan gaitian; aldak, ez bildurto, aurrera eramian, egi-jagaz zuaz eta.

AGIRRE'TAR JOSEBA ANDON'RI

Txoko onetan ere izen errezkeda, eder bat bildu dogu, gure Aberkide andi on, egingo dautsen makilla eder ura eramateko.

ERMU ZALE.

ALDUNAK

Euskal erriko aldun autuak urreratu yatu eguna, aberri alde argi ta garbi iza egin biar dezuna; jaungoikuari eskatukotsu zentzatu laguntasuna, albai arifien jaritxi dauzun Euzkadi'n askatasuna.

Euzkotar anok ipini dogu hixaropena zeusten, eingozeula Euzkadi'n alde egijaz eta benetan; ez sartu zuek Ebroz andiko errijen aruzetan, bestela arappaoko zaituez euren sare nastauten.

Madrid aldian izango dozuz sofista zarrak ugari, bafia zuek bildur bagarik cutsi beti egijari; berezko arrazoi argijagaz lagundu zuek alkarri, egijak beti irabazten dau cutsi ezkeru berari.

Ludia lenen sortu zanetik jaunak geuzat eskiniya, Aitorrek jarri zuan lengo Euzkadi'n bere sendija; bera jaubeinda ondorenguai itxi euskun aberrija, gafierra beriz ezaugarritzat bere euskera garbija.

Aitorren seme danone dogu tronkal su geure geuria, daukanak emon gura ezbadau artu bakotzak bera; beti gertuak egon ezero udal defilian eria, nor ez da izango une orretan benetako gudaria?

Feniztar da greziatarrak garai lari Ebroz arutz, euretatik ifhok exiban irabazi Ebroz onuntz; Erroma tarrak bere naizuen indarrez sartu geuganutz, bafia euskotarrak gertu egozan jasota lau buru gorantz.

Ludi gusija buztarri pian sarturik erromatarrak, bakar bakarrik buztarri barik bizi ziran Euzkotarrak; berreun bat urte eta geijauan euren gudiari zarrak, Ebroz andikan ercin zituen euren ekanduz zantarrak.

Zesar Augusto gizon altuak gudaritza sundijakin, uste bagako atsekabia artuban euzko tarrakin; geure asaba aien antzean batu galzan alkarrekin, ikusi daiten barrio bere sartuten danak gurekin.

Agur aldunak ondo ibili erkaltza berri orretan, zeuen ixenak idatzi doguz geure bijotz barruetan; zeuen lan onak idatzikoguz Euzko izparingietan, ziur jakiniak egun ditzezen uri ta baserrijean.

GARATE'TAR J. M.

ABADINO'TIK

Lengo igandian irigarrita egon ziran umeen kistar ikasbideo azterketak izan ziran. Gutziaik erabiztan eben. Ikastoletako irakasleriak ezkerrek emeko umeok kistar ikasbidien bere gorengoz mallan dagozala ezan geinke. Uriz'tar Joseba, Astigarraga'tar Yon eta Iñaki, Gaztelurru'tar Bingen, Usabel'tar Imanol, Castillo'tar Andresa, Urri'tar Karmen, eta Zabala'tar Andoni euren alkar izketa eta bakar izketa osoro ederto egun ebezan. Ta abestu? Al abestian ondo bigun abestutia. Angeruari baixen euriari zentzen egon giñan. Isasmendi'tar Gotzon jaunak, ondo gertute euki dituz umeok, olan abestuteko. Kamara'tar Joseba, abade ikaslea, eta osoro bergaifnak alkar izketa polito eraldu zituan.

LUISTARRAK

Dagon illar z'an ikurrifien onepena dala ta abestiak ikusten gogor diardue. Gazteok, oraingoan, gauza izugarrien bat gertatu biar dautse. Ango gaubeko abesti ta sonek Mariana eta Aklitia'ko goien dardiezan ardiok be uxatu biar ditues. Bien artian, abestiok entzuteaz, yantzaldi ikeragarririk egiten ei ditues. Ikusj gurako neunke ate zulofik baño, ezpada be, zelako patxada daukien "edade" orretan yantzen egiteko.

MENTZERETAK

Mendiola eta Matianako ikastoletan, astelengan izan ziran. Gutzia ederto egon ez ziran. Endorea, abadea eta idazlarie, Zuhia'tar Kepa jaunak, astertzen ibili ziran. Baita, kistar ikasbideoa asterketan be, Bada'tar Sotero, Ardantz'tar Ipolito, Iturri'tar Lino edore yauzak, nai buruan egon ziran. Olanxte erriko agintafiek erakutsi ona emon biar dabe.

GOGO-INARKUNAK

Iñarkunak egin dituan neskatillak, beste erri-batukoakoska batuta, Urkiola'ra bidezkunda gaur daukie.

GAZTELURARRAK

Martin deunaren eguna gutziz alai ospatu dabe. Euzkadi'ko ikurrifia gorengo puntan ei egoan. Onetik mutillak Euzkadi'rentzako. Daniel, Federico, Iturrakide, jeltzale zintzoak, dira gero. Yarritu mutillak bide orrieri, Euzkadi'ko arieriok be urrin barik daukuzete eta Tamalgaria da semeak amaren aurka ioatea, bafia zer eingo yako ba.

NASKALDIJA

Bilbo'ko udalak, Peña'ko irakasari, Federico Gazteluko izentatu dau. Zorionak. Gaztelu-Iturri'tar Cipriano eta Ania'tar Castillo abadiak, egun batzuk igariten etxeartu dira. Ondo etorriak.

Datorren igandean Kistobal deunaren iaiaik eta beste gauza azko idatziko dautzedas. **GAZTELUPE.**

ELANTXOBE

ARPIDEA

Erri onetan edegita egon dan arpidea Getxo'ko edore jaunari bastoi bat erre-galatzeko. Zarratuda, eta erri gutzijaik ondo jarraitu dautzio ardiore ori. Euzker erriko emakume anderau'eri euren eskabidetak lane gaitik, bardiñ emolieri olan erakutsi dabelako aberriaren maitasun utsa.

ERIVOTZ TAMALA

Arretuta lotu gera, izparringi onen bitartez yakin doganiam, geure erriart mutill izan dan Beitia'tar Joseba-Domeka Bilbo'ko errekan ituota topa dabela, benetako abertzalza zan bera, eta izparringi onetako Euzkel Atalian sarri idatziban "Golkiri" ixen ordia dabela. Izagidan astelengan egii ziran aren gogo alden cleizkunak eta notifia ugari eldu zan eurenara. Yaugoikuak emongo al dautso toki onbat Donokiyuan, eta irakurle maitiak otoi egiiñ daigun aren gogo alde. Goyan Bego.

Baita izagi dau illaren 24'il zan Zabala-beasko'tar Iñaki, erri onetako oskiña izana. Aren sendi maitiari laguntzen dautsegu atzekabatasun aundiyeñan. Goyan Beo ARGIRATU EZ

Izagi dau astian biadu nituan izparringi onen banakolera Lekeitio'ko yai ederraren izpar batzuk eta ez dira izan argiratuak. Zer yaso da? Larregi izan eta itziak dira.

OGONOPE.

Tokirik ez lagun.

Euzkal-Orrian Ir-agarkiak Ipintea, euzkaldunen artean eta saleroslearen artean alkar-tasuna eta ondo-gurea zabaltzea da.

TOLOSA

Gipuzko erri bazterretan, maiz nabaitzen da aspaldidanik Aberri deia, askatasun guda irrintzia.

Baserritar zintzo espain garbietan ifhoiz ez bezela "Gora Euzkadi" nabaiturik, Aitzkorritik asi ta Ernio birtaroko baso zelai zear igarotako Sabiñ-en irudiak (euzko gazteziak biotzean daramakina alegia) dardarkatutako euzko mendi baserritar gain agintasuna deritzaiz. Abendaren tapada leunenak mendi sabelian bai daude; mendiak jasotzen bai dituz euzko izlarion gurrak, eta gutxiene uste, irizten dira mendi semietara, baserritar biotz-biotzera.

Ez da beraz arri sabelian gaitzen euzko mendigoizaleak jaurti oi duan Aberri del irrintzia, erne baño lur goxo emankorpean.

Baserritarra mendi albotik urruntzen etzaiagan bitartean gure-gurea da, emendik eta gelago iritengo da bere otok euzko biotz atsegintzale deudarra "Gora Euzkadi".

Euzko mutikotxo mintzo zoragarria, antzian ez bezelako ikasgaiak entzun ditualako edo, abertzale xamara deritzaiz. Mutikotxo biotz bera da, lur goxo emanorra.

Aundi zale, irudipentsu... guda, sorgin ipuin zifiekaitz sortzalle, edestia atsegifena zai...? edestia bide sortu ote zai mutikotxo azkori abertzaletasun arra? Kezka gabe baizetuko nukle.

Igasitako alditan edesti maltzurten bat edo beste baño, sail zan zumatzea. Euzko edestia illun zan, oso illuna gañera: batzuen burtzuri etziztazen noski atsegin egitako euzko edestia argitalterik.

Urteak aurrera, Euzko alderdi Jeltzale deritzako edo jaiu zan; pillatxo bat bafio ez asieran, altuzena gaur ordea, eta alderdi orren irakaskizunak bide sortu ere makiañab abertzale. Eta gaurko mutikotxoak ikastolan ez ikasi arren, gurasoengandik, edo ana lagunengandik etzeite ezegazuna euzko edestia: Ortxe euzko mutikotxo abertzale izate zergatia.

Euzko edestiak baldin biotzik mugituko badu, bai mutikotxo beintzat. Mutikotxoan Aberri edesti jakiteak, euzko abenda ez dala ilko digu! Gaur egunean, guraso, ana edo adixkide bide, mutikotxoak esagutu bear dute Aberria. Biarko egunean ikastol gutzitan euzko edestia erakutziko danean, ifhoiz amaituko ez dan deudarra entzungo dute euzko mendiak.

¡Gora Euzkadi!

UZTURRE.

OTZANDIYO

EGURALDIYA

Ederrak benetan egiten deuskuiz aldi onetan. Jentea zoli dabil jaijak eldu orduko etxeko zereginak egiten. Bedar sartze eta enparau onelako lanak bere aurrera duaz. Aupa mutillak, ondo ondo gertay jai onetarako!

Beste urteetako antzera. aurtun bere salatsun andija dago erri onetan, deun Mariñaren egunerako. «Berbeste» zagozen gurratrorok, badakizue beste urteetako gauzak ganera, aurtun oelota leku barri eder bat bere aurkituko dozeula. Orregeit'ik ba zertan ezanik ez, utzik egiiñ bagarik, zenbaturteñkezala geure artean.

EUZKALTASUNA

Erri onetan ederto izan dira aurtengo auteskundeak, ba ezkeratarrak, amar aurtaki baño ez ebezan euki, eta euraiz euzkel erriyagaz erreguetaga dagozan-ak dirala zertan ezanik bere ez. Biar bada onek ez dabe jakingo, gixon onen biar ixena zer dan eta ezaten noe. Lenengo erri onetan atsegiiñ ezipazagoe, berbesteja juan. Bigarren, berbesteja yuan, ta euzkel erriyan tokirik ez padago atsegiiñ izateko (anza dagonalez barriz ezare atsegiiñ). Ebrokier antzera juan, bada jente asko biar dabe bertan dagozan lur gorriak atxurteko ta. ¡Guzurta dala ezan leike euzkeludun bat bere ixate. Bere aberriya salzentzen Benetako gixonak bafiña, ogeta lau ordu bere etzendukie erriyan ez euzkel erriyan bere egingo.

Ezkerrik asko egun onetan lana zintzo egiiñ dozun gutziyori, batez bere Bizn'ai anaiyari. Gixon onek, auteskunde onek daukien garrantziya ikusirik, etxian euzkiazan belbi biyaki, erriyaren eskuetan jarririk ebezan. Ezkerrik asko

ERRITARRARI

Bakarrik mementu bat goguan yarri ta ikusten da geure aberri onek igaroten dagan geure aldiya. Gaur Gernika'n batuko dira geure aldunak erakusteko erriyari euren jarrai gogauk erriyari agur bat egijagaz. Etzi barriz Madrillera duaz, geure naiyak bete eta euzkel erriyaren gurari eta erriyaren bila. Oraindik ez daku zer erantsun izango deutzien. Bafia txarra baletor bere, zoli izan biar dogu geure nagoyiak diadar egite en dabenerako, eta biar bada geure odola emoteko, geure erriyaren aurka eta geure asaba zararren oituraren aurka dabilzazanak garbituteko. Jaun Goikua eta Lege Zarrak geureak dira eta geuretzako izan biar dabe. Batez emon gura ezpadabe.

ANDIKONA.

BASAU'RITIK

JEL-IZPARRAK

Aspalditxuan darabilzuez sutsu lanean erri onetako jeltzaleak, Euzko Gaztedija apainduteko banak amaitu gurarik, albai arifien irigi-kundeak egiteko asmuagaz.

Ja ba abertzale maitiak, jarraitu zintzo geure kabi ori eder ta polito apaindute irigi arte. Ez egiri lorik, lu, len egun dogu nauki, itxartu ta atara kelmenok alperrik euki barik, alperkeriak eta itxutasunok galdut gaitu ofiarte be. Ez dogu biar alperkeririk ez lotsarik geure-geuria dana yagon eta goralduteko.

JEL IKURRINA

Belarrietara eldu yaneez ikurrin ederran bat egiten darabilzuez emakume bat edo bi Euzko-Gaztedija'ri zarituteko zabaluntze egunean alan da ze, egun bikañan itxaropena dauku erri onetan be laster. Iza bai, bizkor bizkor danok-danotara bizil emoten badotsagu geure aberri maite oneri zaurituta euki dogu aspalditxuan eta.

ITZALDIA

Datorren larubatean daukogu itz aldia Euzko-Gaztedijan, lenengo gudiari, España'ko bakaldun aginduz yon ziran mutillien urte betek dirala ta egun tamal gauriek Euzkel erriyatzako ziran euraik, 1876'ko urtea, urte itzugarria. Ondo gomutetan dira gure gurasoak, orduarik ona makinebat ana edo galdut degu atzerri gudariketan orduko itsugarrian erruz.

GERNIKA'RA

Datorren igandean Gernika'ra yateko gogo andia dago erri onetan. Notin asko yango garaia uste dot.

BASATXORI BAT.

EGIJA

«Euzkadi» geroago ta edorrago ikuel nai badozu, bilarko itzi unpeñpeñ gure gure egin zaitze.

BILBAO'TIK

GERNIKA'RA

Bijar igandez, Gernika'n ospatuko diran jai ederran barri jakin zan orduko gar aundiya zortu zan emen euretara elduteko, ta zenbat eta eguna urrago, garra biziajog jagi da. Alan da ze bijar igandez Bilbao'rik erdija an ixango da tutarez bañ oroztago emen gelditzeko; alde gutzijañ ezda entzuten besterik Gernika'ra txango gertatzea baño, batzuk tarantetan, besterik burtiaritan ta geijenak bultzi berarizkoetan eta abar. Ezta ardua zelana nun. Arazua igandian Gernika'ra eldudia da.

Bai dira osteria ofiaz egingo dabanek be. Oniek Euzko Gaztediko Bilbotarra mendigoale adrakuak ixango dira. Mutill morrosko, sendo ta adoretsubok gaur larubate gabeen bederetziretan urtekoetan dira Euzko Gazteditik, goxeko ordu bat alderako Muxika'ra elduteko asmuaz, tellape baten, zabi baten edo atseadan apur bat artu ta egun zenitjan an ingurubetako beserrijetan orrijak zabaldu ta zabalunde apurtxo bat eñiaz sasoz Gernika'ra elduteko. Ikurrin da gusti juango dira ta idazki onen bitartez deluteko dirause Bilbotarra'ko mendigoaleleri, beratzi-beratzi-beratzi utsik bage urdu daitzela Euzko Gaztedira, urteria egiteko.

Aupa mutillak bijar danok Gernika'ra geure aldunel agur samur ta maitekorria egitera!

ABELETXE.

MARARI

ELEIZKIZUNA

Gaur, "Mixifino eguna" deritxon eleizkizuna ospatuko da. Goizian, Jaunartziar eta egingo dira; ta arratsaldian be, eleizkizun ederra egingo da. Beraldija, mixifinuatza, zabalundia egiten diardun abade ezagun batek egingo dau. Guazcan da danok eleizara; ta geure aldetik aldogun gutzija zintzo egijaz, Josukistoren guramen deuna beteko dogu.

ERIJOTZA

Astarian il zan Goiti'tar Eulale andrea, "Mendiburu"ko alabia. Gorpuz-biraltzia, eguztazien egizian. Jaunak zeruan euki begi.

Senar eta umetxuari atsekabian lagun gayakaz.

JUAN-ETORRI

Egun batzuk igaro dituz emen. Etxebarria'tar Kaitane neskatilla begikuak.

—Bilbo'tik etorri zan Goiti'tar Luki, emaztiagaz.

—Berezit'ik, Ariznabarre'tar Joseba mutikua.

—Algortat'ik, Jauregi'tar Ander.

—Bilbo'ra juan zan Lete'tar Domeka kontratistia.

—Lengo astian egun ziran emen, kerisak jaten etorria, Aretio'tar Irene, Irasortza'tar Miren Begoña ta Gerediaga'tar Jonetxu neskatilla abertzaliak.

ZALDIBARERA

Igandian, Zaldibar'en egin zan abertzale mitifera emetik be, jeltzale juan ziran. Jai polita izan zala-ta, angogauzak edesuten, epannak batu ezinik ibili ziran. Jai orretara izan ez gitanok, barriz, euriari zentzen une atsegintsu bat igaro gendun.

GERNIKA'RA

Gaur, Gernika'ra, emetik be abertzale batzuk juango dira. Jel-maitasunian egun eder bat igarotia yago dautsugu.

URKIOLA'N

Igandian, Arabarrak, Urkiola'ra bidez-kundian edo polegrinizatzen etorri ziran.

Goizian, meza nagosi ederra ospatu eben; eta arrastegan be, eleizkizuna, ederez gixitan lakua Arabarrak, etza eta ebena. Gaur, osteria Arratiarrak erduko dira bidezkundez. Yente begikua ikusteko gagoz.

¡Aintza Andoni deunari!

MANARIKO.

EGUNEKUA

ESPANA'TIK

KATALUNIKO LE